

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Arabako Foru Aldundiarentzat gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania itzulpenak eta zuzenketak egiteko kontratazioaren lehiaketarako iragarkia

Foru Gobernu Kontseiluaren, otsailaren 21eko 78/2017 Erabakia eta indarreko arautegia betez, Arabako Foru Aldundiarentzat gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania itzulpenak eta zuzenketak egiteko zerbitzua kontratatzeko prozedura irekirako deialdia iragartzen da.

1. Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoa.

c) Espedientearen zenbakia: 397/17

2. Kontratuaren xedea:

a) Xedea: Arabako Foru Aldundiarentzat gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania itzulpenak eta zuzenketak egitea, lan hauek barnean direla: gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania itzulpenak egitea, testuen eta itzulpenen zuzenketa eta inprimategiko proben azken berrikuspena, eta huste eta zerrendatze lanak, terminoen glosario elebidunak egiteko.

b) Loteak eta zenbakiak: kasu honetan ez dagokio.

c) Gauzatzeko epea: hiru urte; hiru urte gehiagorako luza daiteke.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia. Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 78/2017 Erabakiak onartu zuen.

4. Lizitazio oinarria: unitateko prezioak. Kontratuaren gehieneko aurrekontua: 350.000,00 euro.

5. Bermeak.

a) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: 14.462,81 euro.

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea.

a) Erakundea: Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoa, edo Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus, sakatu "Kontratatzailearen profila").

b) Helbidea: Probintzia plaza 14, 2. solairua.

c) Herria eta posta kodea: Vitoria-Gasteiz, 01001.

d) Telefonoa: 945-181818; luzapena: 52208

e) Faxa: 945-181763.

f) Posta elektronikoa: mcerrasti@alava.net

7. Kontratistaren berariazko betekizunak.

a) Saillkapena: ez da eskatzen.

b) Bestelako betebeharrak: ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa; ikus ezaugarrien taulako O) puntua.

8. Eskaintzak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: berrogei (40) egun naturalekoa izango da, kontratuaren iragarkia Europako Batzordera bidaltzen denetik aurrera.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazitakoak.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

Helbidea: Probintzia plaza 5, beheko solairua.

Herria eta posta kodea: Vitoria-Gasteiz 01001.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:15 - 14:30.

d) Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: hiru hilabete.

e) Aldaeren onarpena: ez.

9. Eskaintzak irekitzea:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Helbidea: Funtzio Publikoko Zuzendaritzako bilera gela. Probintzia plaza 14, 2. solairua.

c) Herria: Vitoria-Gasteiz.

d) "C" gutunazalak irekitzeko eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hirugarren egun baliodunean (11:00etan).

e) "A" gutunazalak irekitzeko eguna: interesdunei behar bezala jakinaraziko zaien egunean irekiko da, formulen bidez ebalua ezin daitezkeen irizpideak baloratzeko txostena landu eta gero.

10. Informazio gehiago: ikus administrazio klausulen agiria, baldintza teknikoen agiria eta ezaugarrien taula. Alderdi teknikoei dagozkienak: Euskara Zerbitzua (Tel.: 945-181818 Luzapena.: 52884).

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

12. Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2017ko otsailaren 24a.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

M^a CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR